



ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA, GUEÑESKO HUA-N SORKUNTZA ELEKTRIKO FOTOVOLTAIKOAREN OBRA KONTRATATZEKO. EUOPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIARAKO MEKANISMOAREN FUNTSEKIN FINANTZATU DA, ZEHAZKI, «ITSASERTZA ETA BALIABIDE HIDRIKOAK ZAINTEA» 5. OSAGAIAREN «TRANTSIZIO DIGITALA URAREN SEKTOREAN» 3. INBERTSIOAREN ESPARRUAN. ESPEDIENTE-ZK.: 3153.

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☒ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	JOSE JAVIER SALVADOR GONZALEZ
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak/teknikoak: Tel.: 944873100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea:	GUEÑESKO HUA-KO SORKUNTZA ELEKTRIKO FOTOVOLTAIKORAKO OBRA
2.- Zer beharri erantzun behar zaien:	Instalazioen funtzionamendurako, hornidura elektrikoa behar da. Baliteke hemendik aurrera energia elektrikorik merkeena autokontsumitutakoa izatea (arrazoizko inbertsioetarako). Horregatik proposatzen da inbertsio hau. Eusko Jaurlaritzaren 4/2019 Legearen 17.3 artikulua araberak: «Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzak 2030erako lortu beharra dauka bere eraikin guztietan energia berriztagarriez baliatzeko instalazioak edukitzea, administrazio horren kontsumoaren % 32 zuzkitzeko adinakoak, ustiapen termikoko sistemak nahiz elektrizitatea sortzekoak barne direla». 90 GWh/urte-ren % 32 haxe da: 28,8 GWh/urte. Aprobetxamendu termikoak alde batera utzita, 2021ean 17,2 GWh-ra iritsi gara. Uneotan helburua oso urruti dugu. Inbertsio honek hura betetzen lagunduko du.
3.- Loteka banatzea:	☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzearen justifikazioa: GUEÑESKO HUA-KO SORKUNTZA ELEKTRIKO FOTOVOLTAIKOAREN OBRA zenbait sortatan banatzeak kontratua gauzatzea zailduko luke ikuspegi teknikitik; izan ere, adjudikaziodun bakarrak gauzatzen badu, irizpideak bateratzen dira, komunikazioa azkarragoa da, eta, obra barruan, lanen eta espezialitateen arteko gatazka desagertzen edo txikiagotzen da.
4.- CPV:	- 71300000 - Ingeniaritza-zerbitzuak. - 09330000 - Eguzki-energia. - 09331200 - Eguzki-modulu fotovoltaikoak. - 09332000 - Eguzki-instalazioa.

**B.- KONTRATUAREN XEDEA**

- 45310000 - Instalazio elektrikoko lanak.
- 45261215 - Estalkiak eguzki-plakekin estaltzea.

5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna:
☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa
☒ Administratiboa ☐ Pribatua
C.- KONTRATUAREN PREZIOA**1.- Lizitazio-aurrekontua**
(BEZa gabe)
**BERREHUN ETA BERROGEITA HAMABI MILA
SEIEHUN ETA HOGEITA BEDERATZI EURO ETA
HIRUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO
(252.629,79 €).**
2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 252.629,79 euro.**3.- Prezioa zehazteko sistema:**
☐ Honenbesteko prezioa ☒ Prezio unitarioak.
4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:

Obra	247.829,79 €	16933.62302	Obra
Mantentze-lanak	4.800,00 €	16933.21201	Zerbitzua

Urteko ordainketak Obra

- 2026: 237.503,55 €
- 2027: 10.326,24 €
- 2028: - €
- 2029: - €
- 2030: - €
- 2031: - €
- **Guztira: 247.829,79 €**

Urteko ordainketak Mantentze-lanak

- 2026: - €
- 2027: 960 €
- 2028: 960 €
- 2029: 960 €
- 2030: 960 €
- 2031: 960 €
- **Guztira: 4.800,00 €**

5.- Prezioen berrikuspena:
☐ BAI ☒ EZ
6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:
☒ BAI ☐ EZ

Funts mota: Europar Batasunaren Next Generation EU Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoaren kontura finantzatua. Mekanismo hori Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamenduak, 2020ko



C.- KONTRATUAREN PREZIOA

abenduaren 14koak, ezartzen du, zeinaren bidez COVID-19aren krisiaren ondorengo susperraldian laguntzeko Europar Batasunaren Suspertze Tresna bat ezartzen baita. Horrez gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren arabera arautzen da.

% 60ko baterako finantzaketa (BEZari dagokiona izan ezik).

7.- Ordaintzeko modua:

- Obra-aurrerapenaren arabera, hileko ziurtagirien bitartez ordainduko da kontratuaren zenbatekoaren % 80 gehienez (alde batera utzita mantentze-lanak).
- Hortik gora hileko ziurtagirien bidez ordainduko da obra-aurrerapena, baina honako muga gehigarri hauek betez gastu konprometitu motari dagokionez:
 - Azken dokumentazioa aurkeztea, dagokion administrazio-erregistroan inskribatzea eta abian jartzeko baimena eskuratzea. Jabetzak 4 aste izango ditu gutxienez dokumentazioa egiaztatzeko: % 10 (% 90 gehienez).
 - Harrera-aktaren sinadura (instalazioaren proben ostean): % 10 (% 100 gehienez).
 - Mugarriok bete ezean, adjudikaziodunak ez du kobratzeko eskubiderik izango, ezta ezarritako ekipoak kentzeko ere. Kobratzeko gelditzen dena galduko du, ordainik jasotzeko eskubiderik gabe. Betetzeko epea iraungiko da kontratuaren epea bukatzen denean, baina epe horri hiru hilabete gehituko zaizkio harrera-akta negatiboa sinatzearekin batera.
 - Instalazioaren mantentze-lanen partida hileko ziurtagirien bidez ordainduko da.
- Kontratua prezio itxiarekin da 01.01.01 eta 01.01.02 kapituluaren unitateetarako. Gainerakoa neurtu ostean ordainduko da.

8.- Konturako ordainketak: Ez.

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa: HIRUROGEI (60) HILABETE.

- Obra gauzatzeko gehieneko epea: 12 hilabete.
- Mantentze-lanen iraupena: gainerako kontratu-iraupenaren 60 hilabete bete arte.

2.- Epe partzialak.

☒ BAI ☐ EZ Obra gauzatzeko iraupena: HAMABI (12) HILABETE

3.- Luzapena

☐ BAI ☒ EZ

4.- Bermealdia: Kontratuaren indarraldia.

5.- Kontratua exekutatze tokia: GUEÑESKO HUA

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:



F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena —aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea— kontratuaren BALIO ZENBATETSIA halako bat izan beharko da gutxienez. **(252.629,79 euro).**

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

A. Gutxienez 30 kW-eko instalazio fotovoltaiko baten eraikuntzaren erreferentzia bat, azken 5 urteetan egindakoa (5 urteak zenbatuko dira lizitazioa hasten denetik aurrera).

- 30 kW-etik gorako sorkuntza fotovoltaikoko obra baten amaiera-dataren ziurtagiria aurkeztu behar du, honako datu hauekin batera:
 - Instalazioaren izena
 - Bezeroa
 - Eguzki-eremuaren potentzia
 - Instalazioaren potentzia (inbertsorea)
 - Eguzki-eremuaren argazkiak edo planoak
 - Jabetzaren ziurtagiria edo obra egin zuela egiaztatzen duen kontratuaren kopia
 - Martxan jartzeko akta edo haren komunikazioa

☒ Enpresa sortu berrien gaitasun teknikoak:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeko ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

LANBIDE-GAIKUNTZA

- Behe-tentsioko instalazioetarako lanbide-gaikuntzaren dokumentazioa, behe-tentsioa sortzen duten instalazioetako espezialistaren kategoriarekin.

ENPRESA-SAILKAPENA

☒ BAI, fakultatiboa ☐ EZ.

- Taldea, azpitaldea eta kategoria: 1. TALDEA AZPITALDEA 2. Kategoria: 3.

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintzen balorazio teknikoak

- 1. dokumentua. Ekoizpen-bermea.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- Zer ekoizpen-berme eskaintzen duen adierazi behar du, MWh-n adierazita, kontratuaren iraunaldirako (5 urte); hau da, obraren denbora gehi instalazioa jardunean hasi osteko mantentze-lanen zerbitzua. (Hau ez da instalazioaren funtzionamenduko lehen bost urteetako denbora bera. 5 urteko epea hasiko da obraren zuinketa-akta sinatzen denetik aurrera).
- Ekoizpen-bermearen iraunaldirako mantentze-plana aurkeztu behar du.
- Instalazio fotovoltaikoa ekoizten hasteko estimazioa adierazi behar du (ezinbestekoa da instalazioa legeztatua eta neurria ezarria egotea). Zenbat aste igaroko dira zuinketa-akta sinatzen denetik?

- 2. dokumentua. Soropila zaintzea.

- Soropila zaintzeko zer konponbide proposatzen du sorkuntza-instalazioaren elementuei kalterik egin gabe eta lana egitea eragotzi gabe?

- 3. dokumentua. Potentzia-faktorea erregulatzea.

- Beheko taulako irizpidearen arabera, erregulazio automatikoa ezar al dezake inportazioan?

Aldia/egoera	Inportazioa
1etik 5era	0,94 kapazitibo
6	1

- 4. dokumentua. Zerbitzu topografikoa.

- Deskribatu zer bitarteko edukiko dituzun egituren eta ainguraketa-guneen erreferentzia-lineak finkatzeko.

- 5. dokumentua. Sare-kodea – B kategoria.

- B motakoa izango al da eskainitako instalazioa?
- Hori frogatzen duen inbertsorearen ziurtagiria gutxienez aurkeztu behar da.

- 6. dokumentua. Hornitu beharreko materialak balioestea.

- Modulu fotovoltaikoak.
 - Moduluaren fitxa. Fitxan agertzen direnetatik eskainitako modulua zein den adierazi behar da.
 - Moduluaren ezaugarri nagusiak azaldu behar dira, betiere fitxak argi adierazi ezean, barne hartuta moduluetak berezko kableen nahiz konektoreen luzera.
 - Hausturaren kontrako bermea.
 - Ekoizpen-bermea.
- Eusteko egitura.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- Eskainitako egituraren fitxa.
 - Instalazioaren tokirako kondizioak betetzea justifikatzen duten kalkuluak, eraikigintzaren kodeari jarraikiz.
 - Materialen ezaugarri nagusiak.
-
- Panelen fotovoltaikoen konexioa, inbertsorearen ezaugarriak eta haren webserverra.
 - Zer serie eta modulu konektatuko dituen adierazi behar du, baita panelen artean zer konexio-metodo egingo duen ere. Eta argi gelditu behar dira eguzki-eremuaren konfigurazioa, haren potentzia eta inbertsorearena. Aldaketa oro (proiektuaren inbertsorea, kable-metroak, kutxak, konektoreak edo beste edozein) adjudikaziodunaren kontura joango da.
 - Serie bakoitzerako huts-tentsioaren kalkulua; -5°C -eko giro-tenperatura eta 1000 W/m^2 -ren irradianzia.
 - Inbertsorearen ezaugarri nagusiak.
 - MPPT erreguladore kopurua, ahalik eta gehien.
 - Inbertsorean anti-PID sistema integratua duen.
 - Inbertsorearen pintura C4 da?
 - Isurketen kontrako sistemaren ezaugarriak.
 - Modulatzailerak? Ez da «guztia/ezer ez» sistemarik onartzen, betiere haiekin batera potentziako SPa erregulatzeko ekipo independenteekin batera ez badaude.
 - Inbertsore batekin baino gehiagorekin jardun dezake? Bat baino gehiago eskainiz gero.
 - Webserverren pantaila nagusiak.
 - Estazio meteorologikoaren integrazioa. Integratu al daiteke? Zer ezaugarri dituzte?
 - Inbertsorearen fabrikatzaileak instalazioaren alarmak eta ekoizpena jakinarazteko zerbitzuari buruzko informazioa eman behar du.
 - Honako hauen ezaugarri nagusiak, markak eta ereduak: Aparatu elektrikoak (disjuntorea eta haren erregulazio termikoa eta magnetikoa, etengailu-ebakigailuak, kontaktorea eta abar), bridak, etiketak, gaintentsioen kontrako babesak, lapurreten aurkako sistemak (azkoinak) eta abar.
 - Eguzki-eremuaren kableen ezaugarriak. Bi kolore nahiago dira, gorria (positiborako) eta beltza (negatiborako), eta aplikazio honetarako kable espezifikoak.
 - Erretiluak. Marka, modeloa, erabili beharreko osagarriak eta ezaugarri nagusiak.
 - Kontsumoak monitorizatzeko eta energia kudeatzeko neurgailu adimendunaren ezaugarriak eta fitxa teknikoa, eta gehitu beharreko intentsitate-transformadoreenak.
 - Eskari-kudeaketa duen potentzia-kontrolagailu dinamikoaren ezaugarriak eta fitxa teknikoa, BT 40 ITO arauari jarraikiz.
 - Isurketa-guneko konexioak gauzatzearen eta instalazioarekin integratzearen xehetasuna, egituren eta modulu fotovoltaikoen lur-konexioaren xehetasuna.
 - Neurri elektrikoaren sare-analizagailuaren ezaugarriak eta fitxa teknikoa eta gehitu beharreko neurri-transformadoreenak.



BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- 7. dokumentua. Modulu fotovoltaikoen bermeen erreklamazioaren kudeaketa.
 - Zein izango da prozesua hausturagatik edo ekoizpena ez betetzeagatik bermea erreklamatzeko?
 - Zer banatzaile edo biltegizainen bitartez egin ahalko da?
 - Nork egiten ditu egiaztapenak eta hartzen ditu datuak erreklamazioa balidatzeko?
- 8. dokumentua. Etxola, aldagelak eta material-pilaketa.
 - Zer etxola eta aldagela egongo dira? Gutxienekotik (bainu kimikoa) haratago doana baloratzen da.
 - Instalazioetan materiala pilatzeko eremua baliteke oso mugatua egotea eta lapurretak gertatzeko arriskua egotea. Zer bitarteko erabiliko ditu obran pilaketak ahalik eta gutxien izan daitezen?
- 9. dokumentua. Hobekuntzak edo zenbait hilabete gehiagotan handitzen du bermealdia nahitaezko diren kondizio beretan?

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskainitako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da: Aurrekontuaren laburpena; proiektuaren aurrekontua eta 2. prezio-taula.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA.

☒ Kontratazio-mahaia

Presidenteak:
Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak (titularrak):
Mikel Magunazelaia Pinaga.
Xabier Orue Moro.
Itziar Zarate Urrutia.



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA.

Gerardo Latorre Pedret.
Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria (titularra):
Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoez (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BBM) / 2.....	48 puntu
BBB	47 puntu
0,8 x BBB.....	46 puntu
0,6 x BBB.....	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBB: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta aterako da.

Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBB$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < Bi \leq 0,8 \times BBB$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBB < Bi \leq BBB$

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$(Bi - 0,8 \times BBB)$$

$$Pi = 46 + \frac{\quad}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < Bi \leq (BBB + Bmax) / 2$

$$(Bi - BBB)$$

$$Pi = 47 + \frac{\quad}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBB + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$(2 \times Bi - BBB - Bmax)$$

$$Pi = 48 + \frac{\quad}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

- Memoria teknikoa: 23 puntu.

Ekoizpen-bermea: 15 puntu

Instalazioaren jarduneko lehen 5 urteetan ekoizpena bermatzea baloratuko da, haiek zuinketa egiaztatzeko akta sinatzen denetik aurrera zenbatuta. Puntuazioa lineala izango da instalaziorako adierazitako maximoaren eta minimoaren artean. Ekoizpena bermatzeko helburua bete ezean, zigor hau egongo da: 110 €/MWh.

Puntuazioa bermatutako ekoizpenaren arabera.	
	Lehen 5 urteetan bermatutako ekoizpena (MWh).
Gehieneko puntuazioa.	420
«0» puntuazioa	200

Modulu fotovoltaikoetatik gertuko soropila zaintzea: 0,5 puntu.

Baloratu egingo da soropila zaintzeko planak sorkuntza-instalazioaren elementuei kalterik ez egitea.

Potentzia-faktorea erregulatzea: 3 puntu

Baldin eta gauzatutako instalazioaren gainean, ezartzen bada potentzia-faktorearen kontsigna honako balio hauetan automatikoki finkatzeko moduan:

Inbertsorearen potentzia-faktorearen kontsigna	
Aldia/egoera	Inportazioa
1etik 5era	0,94 kapazitibo
6	1

Zerbitzu topografikoa: 3 puntu

Baloratuko da topografia eta maila laserren zerbitzua erabiltzea egituren eta ainguraketa-guneen erreferentzia-lineak finkatzeko.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAKSare-kodea – B kategoria: 1,5 puntu

Sareetarako konexio-kondizioak, baita soberakin gabeko instalazioak ere, gogortzea aurreikusita, B kategoria betetzen dutenak baloratuko dira.

- **Obran erabilgarri dauden bitartekoak: 25 puntu.**

Hornitu beharreko materialak baloratzea: 17 puntu

Baloratzen dira hornitu beharreko materialak eta haiek zehaztea, baita modulu fotovoltaikoen, inbertsorearen eta abarren hausturen aurkako eta ekoizpen-bermea ere.

- Modulu fotovoltaikoak.
- Eusteko egitura eta ainguraketak.
- Inbertsorea
- eta haren webserverra.
- Isurketen aurkako sistemaren eta estazio meteorologikoaren ezaugarriak.
- Isurketa-guneko konexioak gauzatzearen eta instalazioarekin integratzearen xehetasuna, egituren eta modulu fotovoltaikoen lur-konexioaren xehetasuna.
- Aparatu elektrikoak, bridak, etiketak, gaintentsioen aurkako babesak, lapurreten aurkako sistemak (azkoinak) eta abar.
- Eguzki-instalazioko kableak.
- Erretiluak.
- Neurtzeko tresneria eta neurketa-transformadoreak.

Modulu fotovoltaikoen bermeen erreklamazioaren kudeaketa: 6 puntu

Modulu fotovoltaikoek hausturaren kontrako bermea eta ekoizpen-bermea dituzte, zenbait urtetakoak. Baldin eta jabetzak era horretako edozein berme erreklamatu behar badu, baloratuko da banatzailearekin egin beharreko izapidetzea erraza eta arina izatea; kontua da era horretako erreklamazioak ebazten ohitutako biltegizaina bilatzea, eta haren interesek bezeroen interesekin bat egitea (eta ez modulu fotovoltaikoen fabrikatzailearen edo ordezkari komertzialaren interesekin).

Etxola, aldagelak eta material-pilaketa: 2 puntu

Langileentzat obrak iraun bitartean jarritako bitartekoak baloratuko dira, hala nola etxolak eta aldagelak, segurtasun eta osasunari buruzko azterlanak eskatutako kopuruan baino handiagoan. Baloratuko dira, halaber, obra-materiala pilatzeko dauden bitartekoak, eta materialak egun bakoitzeko muntatze-lanetarako, hain zuzen, entregatzea, kostu gehigarririk gabe.

- **Hobekuntzak: 2 puntu.**

Bermea handitzea: 2 puntu

Gainerako ekipoei eta instalazioari gutxieneko berme gisa ezarritako nahitaezko bi urteko bermealdia handitzea (Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen 8. puntuan adierazita). 4 urte gehiagora arte.

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzaileak duen egoera kontuan izanik:

a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.

b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.

c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.

d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzaille bakarra egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzaille egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzaille egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarra baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzaille edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkeztzen badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzaileri, hautespen-prozesua jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Baztertzeko arrazoa izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

1. PTPAn zehaztutakoak.
2. Lanak zerbitzuaren beharren arabera izango dira. Horregatik, edozein unetan eten edo atzeratu beharko dira, BBUPEk hala eskatuz gero, eta inolako konpentsaziorik gabe. Ez betetzeak kontratua deuseztatzea ekar dezake.
3. Kontratua desegin ahalko da, obran jada ezarritako materiala berreskuratzeko aukerarik gabe, honako arrazoi hauengatik:
 - a) Adjudikaziodunaren akats edo zabarkeria baten ondoriozko matxura larri bat edo istripu larri bat badago.
 - b) Atzerapenagatik % 5eko edo gehiagoko zigorrak aplikatuz gero, horrek kontratua deuseztatzea ekar lezake.
 - c) Kontratua sinatzen denetik sei hilabeteko epearen buruan, baldin eta jabetzak ez badu egiaztatzen, adjudikaziodunaren aldetik, jarduerarik edo obra gauzatzeko borondaterik.
 - d) Instalazioa ekoizten hasten ez bada kontratua sinatu eta 14 hilabeteren buruan.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

4. **«Elitea» (IAS) ziurtagiria eduki behar dute, edo dagokion azpikontratistaren konpromisogutuna haren ziurtagiriaz baliatuz gero.**

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

Eraikinetarako sarbideetako kaleengatiko zigorrak eta haien ondoriozkoak

Eraikinetarako sarbideetan kableak igarotzeko edo kanalizazioetarako egindako kalteak, jakinarazi eta hilabeteko epean konpondu ezean, jabetzak konponduko ditu, eta haien kostua ziurtagirietatik edo kontratuaren bermetik kenduko da. Ohartarazten da jabetzak kontratatutakoak ez duela zertan merkeena izan, baina bai arazoa azkarren konpontzen duena. Instalazio fotovoltaikeen ondorioz gertatzen diren uriragazpenen ondoriozko kalteen kostua ere kenduko da.

Zigorra – obra atzeratzeagatik

Atzerapenik badago obra gauzatzeko epean edo gauzatzeko mugarri edo epe itunduetan, 70 euro eguneko zigorrak aplikatuko dira, kontratuaren zenbatekoaren % 5era iritsi arte gehienez. Galera kontratuaren adjudikaziodunari helaraziko dio, abala adineko galera osatu arte.

Zigorra – dirulaguntza galtzeagatik

Kontratuaren zenbatekoaren % 5eko zigorra ezarriko zaio adjudikaziodunari, jabetzak eskatu ahal dituen laguntzak izapidetzeko beharrezko eta eskatutako dokumentazioa garaiz eta behar bezala eman ezean, betiere kausa kontratistari egozteko modukoa bada.

Zigorrak ekoizpenik ezagatik

Kontzeptu honengatik 110 €/MWh-ko zigorra aplikatuko da adjudikaziodunak kontratuaren bukaerara arte bermatutako ekoizpenaren gainean.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguruia dagoelako egiaztatzea.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez-aplikagarria.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kontura finantzatutako kontratuei dagokienez, aurreikusi gabeko aldaketak izan litezke zehaztutako betekizunak aldatu beharra dagoelako arau-aldaketek planari buruzko ezaugarri/kondizio desberdinak ekartzearen ondorioz.

Kontratua aldatzeko kausa izango da agintari arduradunak agintzea DNSHaren eta etiketa berde eta digitalaren arloan neurri zuzentzaileak hartu beharra dagoela.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA



O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai.

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☐ BAI ☒ EZ

R.- SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA

OSAGAIA:

Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana lau helburu handitan dago eratuta (Espainia berdea; Espainia digitala; Espainia, genero-arrakalarik gabe; Espainia kohesionatua eta inklusiboa) eta hamar palanka-politikatan:

- I. Hiri- eta landa-agenda eta despulazioaren kontrako borroka.
- II. Azpiegitura eta ekosistema erresilienteak.
- III. Energia-trantsizio bidezko eta inklusiboa.
- IV. XXI. menderako administrazioa.
- V. Industria-ehuna eta ETEak modernizatzea eta digitalizatzea, turismoa suspertzea eta Espainia herrialde ekintzaile gisa sustatzea.
- VI. Zientziaren eta Berrikuntzaren aldeko Ituna. Estatuko Osasun Sistemaren gaitasunak indartzea.
- VII. Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena.
- VII. Zaintza ekonomia berria eta enplegu-politikak.
- IX. Kulturaren eta kirolaren industria sustatzea.
- X. Zerga-sistema modernizatzea, hazkunde inklusibo eta jasangarria xede.

Palanka-politika horiek 30 osagaitan zehazten dira. **5. osagaiaren barruan («Itasertza eta ur-baliabideak zaintzea»), 3. Inbertsioa sartzen da:** Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren **uraren sektoreko trantsizio digitala**; osagai horretan kokatzen da lizitazio honen edukia; kontratistak/azpikontratatistak adierazi du horren berri duela eta bere jardura-eremuaren barruan betetzeko konpromisoa hartzen du.

Hartarako, hari lotutako helburuak betetzen lagunduko dute, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren eta Europa zein Espainia mailako suspertze-planen araudiari jarraikiz. Zehazki, oinarri horiekin, esparru hauetan sar litezkeen jarduketak egingo dira: **C5.I3a azpineurria**, ur-baliabideei buruzko ezagutza eta horien erabilera hobetzeari buruzkoa.

Ura eta energia erabiltzean efizientzia sustatzeko erarik onena uraren hiri-zikloaren kudeaketa integrala da, eta digitalizazioa, horrenbestez, uraren hiri-zikloa kudeaketaren efizientzia orokorrean hobetzeko zeharkako neurria da, osagarria eta lagungarria Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana diseinatuta dagoen bezala, «Baliabide hidrikoen ezagutza eta erabilera hobetzeko eta prezipitazioak eta beste datu meteorologiko batzuk erregistratzeko tresnak abian jartzea» 79. CID helburua betetzeko, 91/271/EEE Zuzentaraua betetzen dela bermatzeko eta efizientzia energetikorako irizpideak betetzeko, edota ur-banaketarako sistemetan efizientzia hobetzeko eta ur-galerak murrizteko.

Inbertsioak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren C5.I3 azpineurriaren barruan sartzen direnez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduaren (EB) «Klimaren aldeko ekintzarako jarraipen-metodologia» VI. eranskinaren 3. inbertsioa: 040 - «Ura kudeatzea eta baliabide hidrikoak kontserbatzea (barne hartuta ibai-arroen kudeaketa, klima-aldaketara egokitze neurri espezifikoak, berrerabiltzea, ihesak murriztea)» esku hartzeko arloarekin bat etorriko dira egingo diren

	<u>jarduketak.</u> Entitate deitzaileak egiazta dezan deialdiarekin lotutako mugariak (lorpen kualitatiboak) eta helburuak (lorpen kuantitatiboak) bete direla, kontratistak/azpikontratatistak epearen barruan eta behar bezala aurkeztu beharko ditu egoki iritzitako jarraipen-txostenak, zeinak honako honetan jasota dauden: HFP/1030/2021 Agindua (irailaren 29koa, SEEP kudeatzeko sistema eratzen duena) eta HFP/1031/2021 Agindua (irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarren eta helburuen betetze-mailaren eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaren jarraipena egiteko). Bete behar du, era berean, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa. Ez-betetzetzat hartuko da eskatutako jarraipen-txostenak ez aurkeztea, bai eta txostenok osatu gabe, epea kanpo eta agiriaren zehaztapenak aintzat hartu gabe aurkeztea.
JARDUKETA :	SEEPE 3 – UR DATA 2. B7 TALDEA. A17 JARDUKETA
Kontratazio- organoaren iruzurraren aurkako neurri-plana kontsultatzen o esteka	https://www.consorcioideaguas.eus/web/Transparencia/PDF/INSTITUCIONAL/CAS/Plan-integridad-medidas-antifraude.pdf

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN**KONTRATISTAREN ORDEZKARIA**

Kontratistaren Ordezkararen figura beharrezkoa da. Obraburua izan daiteke ordezkaria, adjudikaziodunaren irizpidearen arabera izango da.

BESTELAKO BERMEAK

- Ondoren adierazitako epeak obraren harrera-akta sinatzen den egunetik aurrera hasiko dira zenbatzen:
 - 10 urteko bermea honako hauei dagokienez: ur-filtrazioak, babes-geruza haustea eta kanalizazioetan, inbertsorean eta, kableak igarotzen diren gunetan, kanpoan eta kanpotik barnealdera gertatzen diren kalteak.
 - 3 urteko lotunean eta obraren aurretik zegoen instalazio elektronikoan egindako aldaketen gainean.
 - Modulu fotovoltaikoek 10 urteko bermea izango dute gutxieneko hausturaren kontra, eta 15 urtekoa ekoizpenari dagokionez.
 - Gainerako ekipotako eta instalazioen, 2 urtekoa.
- Bermeak barne hartzen ditu eragindako kalteak eta dauden ekipoen akatsa konpontzeko



BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

behar diren lan eta material guztiak, mugarik gabe. Hasierako egoerara eramateko behar den guztia, eta jabetzak inolako zeregin eta hornidurarik egin beharrik gabe. Honako zerbitzu hauetaz ari gara, besteak beste: ekipoak eta instalazioak muntatzeko eta desmuntatzeko eskulana, enbalajea, garraioa, konponketa edo ordezkapena, probak eta abar.

- Ekoizpen-bermea: kontratuak irauten duen bitartean. Baldin eta adjudikaziodunak obra aurreikusitakoa baino geroago bukatzen badu, kontratuaren iraunaldiko ekoizpenak eragina izango du.